



## **EGUZKI ENERGIA MTRA. EMILIA ZUZA BRUN IKASTETXEAN**



**Gure ikastetxean, “CEIP Mtra. Emilia Zuza Brun HLHI”, autokontsumorako eguzki-energia fotovoltaikoa dugu, 28 eguzki-plaka instalatu ondoren.**

Lehenengo hiruhilekoan Santurtziko Udalak 28 eguzki-plaka instalatu zituen CEIP Mtra.Emilia Zuza Brun HLHI gure ikastetxeko estalkian. Harrez geroztik, ikastetxeak energia garbia sortzen du bere autokontsumorako. Ekintza hau udalak energia berriztagarrien alde egindako apustuaren ondorio da.

Abian jartzeko, Santurtziko Udalak Energiarako Euskal Erakundeak (EEE) emandako 22.680 euroko diru-laguntza jaso zuen ekintza biak egiteko. Proiektu hori, LHTIn plakak instalatzeko proiektua bezala, energia berriztagarriaren iturrietatik lortutako autokontsumoarekin eta biltegitratzearekin lotutako pizgarrien programari atxikita dago, bai eta bizitegi-sektorean sistema termiko berriztagarriak ezartzeari ere, Europar Batasunak finantziatutako Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan (NextGeneration EU).

